

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Nafarroako Gobernua auzi penalean pertsonatuko da hainbat pertsonak San Ferminetan egindako bortxaketa batengatik

Adierazpen instituzional bat onartu du gainera; haren bidez, aurrerantzean herri-akzioa egikaritzeko konpromisoa hartzen du emakumeen aurkako indarkeria kasu larrienetan

Asteazkena, 2016.eko uztailak 20

Nafarroako Gobernuak erabaki bat hartu du gaurko bilkuran eta, haren arabera, Iruñeko 4. Instrukzio Epaitegiak jarraitutako auzi penalarri lotutako herri-akzioa egikaritzea onartu du, uztailaren 7an, Iruñean, Madrilgo neska gazte baten aurka egindako delituengatik (bortxaketa, sexu-erasoa eta indarkeria eta larderia erabiliz egindako lapurreta).



Nafarroako Gobernuko fatxada.

Gainera, halaber, Gobernuak [adierazpen instituzional](#) bat onartu du gaur; haren bidez, aurrerantzean herri ekintza egikaritzeko konpromisoa hartzen du emakumeen aurkako indarkeria-kasu larrienetan.

Hainbat pertsonak San Ferminetan egindako bortxaketa

Kasu honetan, dagozkion prozesuko jarduerak Lehendakartzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentuko Aholkularitza Juridikoko Zerbitzuaren kargu utzi dira.

Biktimak uztailaren 7an aurkeztutako salaketaren ondorioz, bost pertsona atxilotu ziren, gaur egun behin-behinekoz espetxeratuta daude, eta epaitegi horrek atxilotako pertsona horiek ikertzen ari da.

Nafarroako Gobernuaren aburuz, "salatutako gertaerak oso larriak dira, biktimak jasandako indarkeriagatik nahiz erasotzaileek elkarrekin parte hartu eta indarkeria fisikoa erabili izanagatik, kopuruan gehiago eta indartsuagoak zirela baliatuz".

Apirilaren 11ko 14/2015 Foru Legearen, emakumeen aurkako indarkeriari aurre egitekoari buruzkoaren, 65. artikulua aitpatzen duenez, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak prozedura penaletan pertsonatu ahalko da herri-akzioa egikaritzeko emakumeen aurkako indarkeria-kasu larrienetan. Halaber, epaitegiko ordezkari eta defentsa Nafarroako Gobernuari egokitu zaiola ezartzen du; nolahi ere, epaitegiko ordezkari eta defentsako funtzio horiek elkargoan dauden

abokatu baten edo gehiagoren kargu uztea errespetatu ahalko da.

Hemendik aurrera Gobernuak emakumeen aurkako indarkeria kasu larriengan pertsonatuko da

Gainera, gaurko bilkuran Gobernuak adierazpen instituzional bat onartu du; haren bidez, hemendik aurrera Foru Gobernuak prozedura penaletan pertsonatuko da herri-akzioa egikaritzeko emakumeen indarkeria kasu larriengan edo delituak haiei heriotza eragiten dietenean.

Testuan aipatzen denez, "Nafarroako Gobernuak herritarrei emakumeenganako indarkeriaren aurkako bere konpromisoa helarazi nahi die emakume bakar batek ere bere oinarrizko eskubideak eta askatasunak ukatuak izan ez ditzan, berdintasuna, segurtasuna eta duintasuna, esate baterako. Alde horretatik, "emakumeen aurkako indarkeria argi eta garbi" gaitzesten du "haien giza eskubideen urraketa handi gisa, gizon nahiz emakumeen arteko errespetuaren eta berdintasunaren alde agertzen gara".

Gainera, Foru Gobernuak "Nafarroako emakumeen aurkako indarkeriaren tratamendu profesionala hobetzeko konpromisoa" argi utzi nahi du, alor horretan ikertuz eta ezagutza sortuz, erakunde arteko koordinazio hobean sakonduz, errealitate horren prebentzioa azpimarratuz, eta egoera horretan dauden emakumeei nahiz haien mende zuzenean dauden guztiei, beharrezko baliabide guztiak emanaz beraien bizitza duina izan dadin, eta haren bidez, gizarte osoarena, era honetan, bere borondate politikoa erakutsiz; borondate hori, gainera, gizartearen erakutsi du herritarren erantzun eredugarri batekin eta jarrera argi eta irmo batekin".